


Plaketek malariaren parasitoari nola erasotzen dioten



ARG.: © ANDREAS GRETH/MACQUARIE UNIBERTSITATEA

Gure odoleko plaketek malaria eragiten duen *Plasmodium falciparum* bizkarroiari erasotzeko gaitasuna dute. Goiko irudian ikus daitezkeen bezala, plaketa (eskuinean) globulu gorri infektuari (ezkerrean) lotzen zaio, eta haren barruko bizkarroia akabatzen du. *Science* aldizkarian gaur

argitaratu den lan batek defentsa-mekanismo horren gakoak argitu ditu. Plaketak PF4 izeneko proteina bat jariatzen du, proteina hori globulu gorriaren barrura sartzen da, eta, nola ez dakiten arren, ikusi dute proteina horrek eragiten duela bizkarroia hiltzea. PF4 proteina zelula barrura

sartzeko, ordea, beharrezkoa da globulu gorriak Duffy errezeptorea izatea; eta Afrikako populazio askok ez daukate errezeptore hori. Hala ere, ikertzaileen arabera, PF4 proteina eta Duffy errezeptorea arma berriak izan litezke malariaren aurkako borrokan. ●

Hipersomnia zerk eragiten duen argitu dute

Egunean 10 ordu lo eginda ere, esnatzeko eta esna mantentzeko zailtasunak dituzte hipersomnia duten gaixoek. Hori zergatik gertatzen den argitu dute Emory Unibertsitateko ikertzaileek. *Science Translational Medicine* aldizkarian argitaratu dutenez, lasaigarri batek bezala jokatzeko duen substantzia bat sortzen dute gaixoek.

Hipersomniak ez du zerikusirik apnearekin, ez eta narkolepsia dutenek izaten dituzten bat-bateko lokartzeekin ere. Hipersomnia dutenek lo asko egiteko beharra dute, eta hala ere, inoiz ez dira erabat esna egoten. Fisikoki esna egon arren, mentalki ez daudela; hala diote gaixoek, eta lanbro artean baleude bezala sentitzen dira. Estimulatuzaileekin

edo pizgarriekin tratatu izan dira orain arte, baina ez dute ia eraginik kasu gehienetan. “Balaztatutako auto bat arrankatzen saiatzearen parekoa da egoera —dio ikerketa zuzendu duen David Rye ikertzaileak, Emory Unibertsitatearen prentsa-oharrean—; pentsatu behar dugu azeleragailua gehiago zapaldu nahian jarraitu beharrean, balazta askatu behar dugula”.

32 gaixoren likido zefalorrakideoaren laginak aztertuta, ondorioztatu dute identifikatu ez duten substantzia batek GABA neurotransmisoreari eragiten diola. Hain zuzen ere, GABAK neuronon jarduera moteltzen du. Laborategiko zelulei gaixoen likido zefalorrakideoa

gehitzean, ikusi dute GABAren eraginkortasuna ia bikoiztu egiten dela. Efektu hori bera dute, hain juxtu, benzodiazepinan oinarritutako lasaigarriek, Valium-ek esaterako.

Mekanismoa zein den jakinda, saio pilotu bat ere egin dute, zazpi gaixorekin, benzodiazepinen aurkako eragina duen flumazenil botikarekin (lasaigarrien gaindosiak tratatzeko erabiltzen da botika hori). Eta gaixo guztiei berdin eragin ez dien arren, nahiko emaitza onak lortu dituztela diote ikertzaileek. Haien esanean, hurrengo pausoak izango dira substantzia eragilea identifikatzea, eta flumazenilarekin saio kliniko handiagoak egitea. ●